

ERABAKIA, 2022ko URTARRILAREN 12koa, ERREKTOREARENA, UPV/EHUren ETA USACen (UNIVERSITY STUDIES ABROAD CONSORTIUM) ARTEKO 2022-23rako HITZARMENAREN BAITAN DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERETARAKO DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEKO.

UPV/EHUK eta Renoko (Nevada) Unibertsitateak (azken hau University Studies Abroad Consortiumeko kide diren Amerikako Unibertsitateen ordezkari moduan) lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten 2015ean, jarduera akademiko eta osagarri jakin batzuk garatzeko asmoz.

Unibertsitatea Nazioartekotzea, hain zuzen, unibertsitateko irakaskuntzen kalitatea hobetzeko erronka funtsezkoenetako bat da. Hitzarmenak arrakastaz betearazi ditu orain artean aurreikusitako Nazioartekotze-ekintza guztiak; ondorioz, ekintza horien irismena zehazten duten egoerak aztertuta, hitzarmena egikaritutako duten laguntzen deialdia berriro argitaratzea erabaki da.

Hitzarmenaren arabera, University Studies Abroad Consortiumek finantzatuko ditu ekintza guztiak. Euskera, Kultura eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak, bestalde, bere bizkar hartuko du deialdia argitaratzeko eta kudeatzeko lana, eta baita aurreikusita dagoenean, ekintzen emaitzak gainbegiratzeko lana ere.

Azaldutakoaren harira, kreditua egon badagoela kontuan izanda, eta neure eskumenak erabiliz, honako hau,

ERABAKI DUT:

Lehena: UPV/EHUren eta USACen (University Studies Abroad Consortium) arteko hitzarmenaren baitan diruz lagundu daitezkeen jardueretarako deialdiaren oinarriak onartzea eta argitaratzea, 2022-2023 ikasturterako, horretarako izendatutako kontuan USACek jarritako kontu saila erabilia.

Bigarrena: Erabaki honen berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, unibertsitateko taula birtualean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Errekurtsoa erabakia eman duen organoaren aurrean jarri ahal izango da, Herri Administrazioetako Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 116. eta 117. artikuluetan xedatuta dagoenarekin bat eginda.

Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasi, eta bi hilabeteko epean.

Ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri, harik eta espresuki ebazten den arte edo jarritako berraztertze-errekurtsoa ustez gaitzetsi arte.

OINARRIAK

1.- ZENBATEKO OROKORRA

UPV/EHUren eta USACen artean deialdi honetarako adostutako zenbatekoa nahikoa izango da emango diren laguntza guztiak ordaintzeko. Zenbateko hori ekintzen arabera dago banatuta, 2. oinarrian azalduta dagoen moduan.

Zenbateko hori ezin da, inola ere, aldatu.

Ekintza bakoitzerako dauden beka guztiak ematen ez badira, esleipena egitean, sobera dagoena hurrengo ekitaldiko ekintza berbererako gordeko da.

2.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK

1. ekintza: BIDAI POLTSA

Ekintza: UPV/EHUko irakasleen egonaldiak ikerketa-jarduerak egiteko (2022an egin beharrekoak), atzerriko unibertsitateetan, non irakasleak, eskaerarekin batera, unibertsitate horretan dituen kontaktu akademikoak aurkezten dituen eta ostatua bere kontura kudeatzen duen.

Taldea: UPV/EHUko irakasleak.

Finantzaketa: Emandako beka bakoitzeko 1.600 dolarreko laguntza; alegia, aurkeztutako proiektu bakoitzeko, eta ez irakasle bakoitzeko. Laguntza 800 dolarreko bi ordainketatan emango da: lehenengoa, bidai-faktura aurkeztu ondoren; eta bigarrena, egonalditik itzultzean, egindako ikerketa-lanari buruzko txostena aurkeztu ondoren. Ikerketa egiteko egonaldia, gutxienez, hilabetekoa izango da.

Bekari uko eginez gero, sobera geratzen den dirua deialdi horretako ekintza berean beka eskuratu duten gainerako proiektuen artean banatuko da, egonaldiaren aukeraketa eta iraupenerako finkatutako irizpideekin bat eginda.

Asegurua: Ez dago barne. Nahitaezkoa da, guztientzat, bidaiako laguntza aseguru kontratatzea deialdi edo ekintza bakoitzean zehaztutako baldintzetan.

Bisa izapidetzeko gastuak: Ez daude barne.

Laguntzen kopurua: 3 beka.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Curriculum laburbildua, ingelesez
2. Ikerketa proiektuaren laburpena, ingelesez (2. eranskinean aurkeztutako ereduaren arabera), atzerriko unibertsitateak sinatua.
3. Ingeles mailaren egiaztagiria: B2.
4. Bidaiatzeko datak (joan-etorria)
5. Saileko zuzendariaren baimena
6. Atzerriko unibertsitateak sinatutako gonbidapen-gutuna.

Hautapen irizpideak (garrantziaren arabera):

1. Ikerketa-proiektuaren justifikazioa eta harrera-unibertsitatearen profilari begirako egokitzapena.
2. Jakintza arloen arteko oreka aurkeztutako eskaeretan.
3. Lehentasuna izango dute aurretik horrelako bekarik jaso ez duten hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea: 2022/01/13-2022/02/11

Erabakiaren data: 2022/03/14

Uko egiteko epea: 2022/04/04

2. ekintza: GRADUATE ASSISTANTSHIP (GA) UNIVERSITY OF NEVADA LAS VEGAS (UNLV), 1-2 URTE, MASTER KLASEAK BARNE.

Ekintza lehen seihilekoan (2022ko udazkenean) GAK hiru eskola hartuko ditu Hispanic Studieseko Master programan, eta bigarren seihilekoan (2023ko udaberrian) GAK espainierazko bi eskola irakatsiko ditu (eta master eskolak hartzen jarrai dezake).

Hautagaiak bigarren urte baterako jarrai dezake, Masterra amaitzeko, eta, kasu horretan, lehentasuna izango du beka berriz jasotzeko.

Finantzaketa: \$20,250.00

Asegurua: ez dago barne. Nahitaezkoa da, guztientzat, bidaiako laguntza aseguruaren kontratatzea deialdi edo ekintza bakoitzean zehaztutako baldintzetan.

Taldea: UPV/EHU 17-18, 18-19, 19-20, 20-21 eta 21-22 ikasturteetan graduatutako ikasleak.

Iraupena: Ikasturte akademikoa (abuztutik maiatzera 2022-23), hurrengo urtean beka berritzeko aukerarekin, masterra amaitu ahal izateko.

Bidaia: Ez dago barne.

UNLVko Graduate School-ean onarpena eta bisatua izapidetzeko gastuak: Ez daude barne.

Plazen kopurua: 2.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Curriculum, ingelesez
2. Egiaztagiri akademikoa
3. Ingeles mailaren egiaztagiria: C1.
4. Motibazio gutuna (asmoak, helburuak: 250 hitz)

Hautapen irizpideak: Lehentasuna emango zaie unibertsitate atzerriarraren beharrei eta baldintzei, eta Masterrera ikasketen bigarren urtea betetzeko Nevadara itzuli nahi duten hautagaiei ere.

Eskaerak aurkezteko epea: 2022/01/13-2022/02/11

Erabakiaren data: 2022/03/14

Uko egiteko epea: 2022/04/04

3. ekintza: GAZTELANIAZKO IRAKURLEA, MOUNT UNION COLLEGERAKO

Ekintza: Gaztelaniazko eskolak ematen laguntzea.

Taldea: UPV/EHUn 17-18, 18-19, 19-20, 20-21 eta 21-22 ikasturteetan graduatutako ikasleak

Finantzaketa: egonaldia, 450 dolar hilean eta seihileko bakoitzean hamabi krediturainoko matrikula doan.

Asegurua: barne dago.

Iraupena: ikasturtea (abuztutik maiatzera).

Bidaia: ez dago barne.

Ostatua: egoitza bateko banakako logela barne.

Mantenua: mantenu osoa unibertsitateko kafetegian (21 otordu astean).

Bisa izapidetzeko gastuak: ez daude barne.

Plazen kopurua: 1.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Curriculum, ingelesez
2. Espediente akademikoa
3. Ingeles mailaren egiaztagiria

Hautaketa irizpideak: eskatzaileei elkarriketa egingo zaie banan bana, eta Mount Union Collegek aukeratuko du hautagaia.

Eskaerak aurkezteko epea: 2022/01/13-2022/02/11

Erabakiaren data: 2022/03/14

Uko egiteko epea: 2022/04/04

4. ekintza: UDAN USAC PROGRAMETAN IKASKETAK EGITEKO HIRU BEKA

Ekintza: Lau beka emango dira. Bakoitzak 2.250 dolarreko balioa izango du eta horien artetik 750 bekaren hartzaileari emango zaizkio, bidaiarako laguntza moduan. Gainerako 1.500 dolarrak matrikula-gastuak, programatutako txangoak eta programa bakoitzaren berezko jarduerak ordaintzeko erabiliko dira.

Beka barnean **ez** daude bilduta ostatua, mediku-asegurua, hautazko txangoak, ikasliburuak, ordainketa gehigarria duten ikastaroak eta gastu pertsonalak. Nahitaezkoa da, guztientzat, bidaiako laguntza aseguruaren kontratatzea deialdi edo ekintza bakoitzean zehaztutako baldintzetan.

Programa bakoitzean eskainitako ikastaroei buruzko informazio gehiago eskuragarri dago honako helbide honetan: <http://usac.unr.edu>

Taldea: UPV/EHUri lotutako unibertsitate-komunitate osoa.

Plazen kopurua: 3.

Programak:

- Alemania (Lüneburg): alemana eta Europako ikasketak
- Brasil (Florianópolis): kultura, ekonomia, natur baliabideen administrazioa.
- Txina (Chengdu): txinera eta soziologia-ikasketak
- Txina (Shanghai): txinera eta nazioarteko negozioak
- Frantzia (Paue): frantsesa eta Europako ikasketak (udako 1. saioa baino ez)
- Italia (Reggio Emilia): pedagogía, giza nutrizioa, hizkuntza
- Italia (Torino): artea, arkitektura eta nazioarteko negozioak

- Italia (Viterbo): artea, musika eta historia
- Txekiar Errepublikak (Praga): artea, kultura eta politika
- Tailandia (Chiang Mai): kultura, politika eta ekonomia. Ikastaroak ingelesez dira.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Curriculumak, ingelesez
2. UPV/EHUrekiko loturaren egiaztagiria (matrikula)
3. Hizkuntza mailaren egiaztagiria B2
4. Motibazio gutuna (asmoak, helburuak; 250 hitz)

Hautapen irizpideak: Atzerriko hizkuntzen ezagutza eta haiekiko interesa. Lehenetsuna izango dute aurretik laguntzarik jaso ez duten hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea: 2022/01/13-2022/02/11

Erabakiaren data: 2022/03/14

Uko egiteko epea: 2022/04/04

5. ekintza: KONTAKIZUN LABURREN "FÉLIX MENCHACATORRE" LEHIAKETA

Ekintza: Félix Menchacatorreren oroimenez sortutako kontakizun laburren lehiaketa. UPV/EHUko Espainiar Literaturako irakaslea izan zen eta USAC programaren zuzendaria hainbat urtez, Bilbon. Kontakizunak gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez idatzi daitezke.

Taldea: UPV/EHUko unibertsitate komunitate osoa; baita USAC programako ikasleak eta beste truke programetako ikasleak ere.

Saria: 500 dolarreko sari bat hizkuntza bakoitzean.

Baldintzak: Lehiakide bakoitzak hizkuntza bakarrean aurkeztu ahal izango du bere kontakizun laburra. Kontakizun laburrak izenburua eduki beharko du, ez ditu 2.000 karaktere baino gehiago izango eta lau ale aurkeztu beharko dira, tarte bakoitzarekin.

Lehiaketaren oinarriak helbide hauetan ikus daitezke: <http://usac.unr.edu> eta <https://www.ehu.es/es/web/nazioarteko-harremanak/usac>

Kontakizunak aurkezteko epea: 2022/04/14

Erabakiaren data: 2022/05/07

3.- ESKARIAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Ekintza bakoitzerako finkatutako epeetan aurkeztu beharko dira.

1., 2. eta 4. ekintzak: Eskaera eta dokumentazio gehigarria bide telematikoz aurkeztuko dira, unibertsitatearen webgunea erabiliz:

<https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/usac>

Eskaerak aurkezteko epea irekita egongo da 2022ko otsailaren 13ko 23.59 arte (penintsulako ordua). Aplikazioak aukera emango dio eskatzaileari parte hartzeko behar dituen dokumentuak pdf formatuan zuzenean erants ditzan.

Eskaerak Erregistro Orokorreko edozein bulegotan aurkez daitezke Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 eta 5 artikuluetan jasotako moduak erabiliz, beti ere helbide honetara zuzenduta:

ATT: Iñigo Gonzalez

Oficina Relaciones Internacionales UPV/EHU

Edificio Ignacio Maria Barriola, 1º planta.

Plaza Elhuyar 1, 20018 DONOSTIA

(lehentasuna duen ekintza zehaztu).

3. ekintza: USACen bulegoan, Elbira Zipitria, Ondarreta 18, 20018 Donostia. Informazio gehiago honako telefono-zenbakian: 943 01 5352.

5. ekintza: USACen bulegoan, Enpresa Ikasketen UE, Elkano 21, 48008 Bilbo. Informazio gehiago honako telefono-zenbakian: 946 01 4716.

4.- ESKAERA

Hainbat ekintzatarako eskaerak aurkeztuz gero, lehentasun-hurrenkera adierazi beharko da, eskabide-orrian horretarako jarritako laukitxoan. Hautagai bati ekintza baterako laguntza ematen bazaio, gainerako ekintzetatik desagertu egingo da. Lehentasuna emandako ekintzarako laguntza jaso ondoren laguntza horri uko eginez gero, hautagaiak ez du eskubidea izango lehentasunaren arabera atzerago jarritako beste ekintza baterako laguntza jasotzeko; non eta ez diren laguntza batzuk hutsik geratzen. Hala bada, egoera berean dauden beste kasuekin batera aztertu beharko da. Nolanahi ere, uko egiteko finkatutako epearen ondoren egiten bazaio uko emandako laguntza bati, ez da aipatutako azterketarako aukerarik izango.

Eskaerak ez baditu betetzen ekintza jakin horretarako finkatutako baldintza guztiak edo ez baditu erantsita eskatutako dokumentu guztiak, Euskera, Kultura eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak eskatzaileari eskatuko dio 10 astegunetan akatsa konpontzeko edo falta diren dokumentuak bidaltzeko. Eta jakinaraziko dio hala egin ezean, atzera botako diotela eskaera, 30/92 Legeko 71.1 eta 42.1 artikuluetan xedatutakoarekin bat eginda. Emandako epean ekintza

bakoitzerako eskatutako ingeles maila egiaztatzen ez duten hautagaiak zuzenean baztertuko dituzte.

Akatsak zuzentzeko jakinarazpena errektoreordetzaren web-orrian argitaratuko da <https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/usac>; baina, betiere, eskatzaileari zuzenean bere helbide elektronikoko ofizialera bidaltzeari kalterik egin gabe.

Eskatzaileak hobeto ikus ditzan ingeleseko tituluak zeren parekoak diren Europako erreferentzia markoan, honi atxiki zaio ingeleseko maila/azterketa ofizialen baliokidetasunen taula.

5.- HAUTAPEN IRIZPIDEAK

Eskaeraren akatsak edo urritasunak konpontzeko 10 eguneko epea igaro ondoren, horretarako izendatutako batzordea bilduko da, onartutako en inguruan eztabaidatzeko. Honako pertsona hauek osatuko dute, hain zuzen, batzorde hori: Euskera, Kultura eta Nazioarteko Harremanen arloko zuzendariak (lehendakari-lanak egingo ditu), eta hiru batzordekideak (batzordeko idazkari-lanak egingo dituen errektoreordetzako teknikari bat eta Partzuergoak horretarako izendatutako USACeko bi ordezkari).

Ekintza bakoitzean jadanik deskribatuta daude zein izango diren hautapen irizpideak.

GARRANTZITSUA: pandemiaren ondorioz, 2020ko deialdian 1., 5. eta 6. ekintzetarako hautatutakoek ezin izan zuten mugikortasuna egin. 2020ko Ezohiko Ebazpenean adierazi zen bezala, pertsona horiek lehentasuna izango zuten 2021eko deialdian. 2021ean deialdia ireki ez zenez, lehentasun hori 2022ko deialdira luzatuko da. Lehentasun horretaz baliatzeko, eskatzaileek interesa duten ekintzetan ezarritako epeak eta baldintzak bete beharko dituzte, behar den epean eta moduan. Hautaketa, lehentasun hori kontuan hartuta eta ekintza bakoitzean ezarritako hautaketa-irizpideen arabera egingo da. Berdinketa gertatuz gero, epaimahaiak informazio edo argibide gehiago eskatu ahal izango du, edo elkarrizketa pertsonal bat egin, erabaki bat hartu eta berdinketa hausteko.

6.- ERABAKIA

Euskera, Kultura eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordeak, batzordeak erabakitakoa aintzat hartuta, laguntzak esleituko ditu.

Esleipenen erabakia, hain zuzen, iragarki-taula birtualean, Campus bakoitzeko iragarki-taulan eta Nazioarteko Harremanen web-orrian argitaratuko da. Gainera, interesdunei ere banaka-banaka emango zaie erabakiaren berri, haien eskaeran jarritako helbide elektronikoa erabiliz. Hain justu, eskaerak aurkezteko eta horietako akatsak zuzentzeko hurrenez hurreneko epeak amaitu, eta hiru

hilabeteko epea egongo da horretarako. Epe horretan inolako erabakirik eman eta jakinarazten ez bada, eskaerak atzera bota direla ulertu beharko da.

Erabaki honen berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, banakako jakinarazpena egin, eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Errekurtsoa erabakia eman duen organoaren aurrean jarri ahal izango da, Herri Administrazioetako Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 116. eta 117. artikuluetan xedatuta dagoenarekin bat eginda.

Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasi, eta bi hilabeteko epean.

7.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Bidaian parte hartzen duten irakasleek euren kasa kudeatu beharko dute kasu hauetarako orokorrean eskatutako joan-etorrietarako lizentzia, eta Gizarte Segurantzari eman beharko dio bere desplazamenduaren berri.

Laguntza ematean kontuan hartutako egoeraren bat aldatuz gero, errektoreordetzari jakinarazi beharko zaio, derrigorrean, ahalik eta lasterren.

Ekintza bakoitzerako finkatutako arauen arabera ordainduko dira laguntzak. Gastuen egiaztagiriak aurkeztu behar dituzten onuradunek ekintza amaitu baino 15 egun lehenago egin beharko dute, eta hala badagokio, ekintza bakoitzeko betebeharren artean ageri den ekintzari buruzko txostenarekin batera.

Laguntza esleitu zaion pertsonak ezin izango balu bidaia egin, errektoreordetzari idazki bat aurkeztu beharko dio, eta uko egiteko izan dituen arrazoiak azaldu beharko dizkio. Era horretan, berari esleitutako kopurua 1. ekintzako eta hurrengoko gainerako esleipendunen artean banatuko da, gainerako ekintzetarako balorazio-batzordearen aktan finkatutako lehentasun-hurrenkeraren arabera.

8.- APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

Deialdi honetako oinarrietan jasota ez dagoenari ondokoak aplikatu beharko zaizkio: azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako arautegia, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.

UPV/EHUko errektoreak 2021ko urtarrilaren 28an eskumenak eskuordetzeko emandako erabakiaren bitartez sinatua.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 12a.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

EUSKERA, KULTURA ETA NAZIOARTEKO HARREMANEN ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE EUSKERA, CULTURA E INTERNACIONALIZACIÓN

M. Juncal Gutiérrez Mangado Euskera, Kultura eta Nazioarteko Harremanen
errektoreordea